

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 90.000 euroko laguntzak deitu ditu ikasle gaixoen etxez etxeko hezkuntza-arretarako

*Helburua eskolako desfasea ekiditeko gaitutako irakasleak kontratatzen dituzten familiei konpentsatzea da*

Lunes, 12 de noviembre de 2012

Nafarroako Gobernuak 90.000 euroko laguntzak deitu ditu ikasleen etxez etxeko hezkuntza-arretarako eta gaixotasun edo susperraldi luzeagatik ezin dutenak era erregularrean bere ikastetxera joan 2012-2013 ikasturtean. Diru-laguntzen helburua gaitutako irakasleak kontratatzeko beharrak eragiten dien gastua familiei konpentsatzea da, hala beren seme-alabek izan dezaketen desfasea ekiditeko.



Azaroaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratutako [deialdi](#)an parte hartu dezakete Haur Hezkuntzako (3-6 urte) bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza eta DBH funts publikoak dituzten Nafarroako edozein ikastetxetan ikasten ari diren ikasleen guraso, edo legezko tutoreak, baldin eta medikuaren aginduz etxean susperraldian badaude eta ikastetxera ezin badute joan era normalean 21 egun natural baino gehiagoko aldi edo, gaitz kronikoengatik, aldi behingo bajak eta baja jarraituak eskatzen dituztenak, gutxienez sei hilabetez.

Laguntzak banako ebaluazio-erregimenean emango dira; hala, eskaerak aurkeztu ahala izapidetu eta ebatziko dira horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean. Aurkezteko epea 2012ko azaroaren 13an zabaltzen da formalki eta 2013ko ekainaren 30a bitarte luzatuko da, nahiz eta irailaren 1etik aurkeztutako eskaerak onartuko diren. Haiek ikaslea dagoen ikastetxean aurkeztu beharko dira.

Etkez etxeko hezkuntza-arreta ikasturtean zehar egingo da. Asteko hezkuntza-arretaren gehieneko denbora bost ordukoa izango da, ahal dela hiru alditan banatuz, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, eta zortzi ordukoa, oro har bi orduko lau saiotan banatuta, DBHko ikasleentzat. Gainera, hilean bi ordu izango dira arreta emandako ikaslearen tutoreen eta etkez etxeko eskolak ematen dituen irakasleen arteko koordinaziorako.

Emandako laguntzaren zenbatekoa ondorengo modulu ekonomikoen

arabera erabakiko da: 12 euro/orduko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat eta 18 euro/orduko DBHko irakasleentzat. Ordainketa egingo da onuradunek zerbitzua ematen duten irakasleen ordainketa-kontzeptuan egindako gastuak egiaztatzen dituztenean,

Irakasleek ezingo dute Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin inolako kontratuedo lan-harremanik izan. Nolanahi ere, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroaren (CREENA) ospitaleko eta etxez etxeko hezkuntza-arretako ekipoak, hala nahi duten onuradunen esku utziko dute beren beharrei erantzuteko Haur, Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakasleen zerrenda bat.